

## Nola esleitzen dira alokairuko etxebizitza babestuak?

Errentamendua eta errentamendu eskuragarria

# Herritarrentzako gida

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua
AGENDA 2030
Vivienda Navarra
Etxebizitza Nafarroa

## Hasi aitzin

Parte hartzeko, inskribatuta egon behar duzu Etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsuan, eta zure datuak eguneratuta eduki.

### 1. Zer motatako esleipeni aplikatzen zaie gida hau?

Gida hau aplikatzen zaie alokairuko araubidean eta alokairu eskuragarriko araubidean zozketa bidez esleitzen diren etxebizitza babestuei. Etxebizitza horiek erreserba orokorrean egon behar dute.
Erreserba berezietako etxebizitzak eta jabetzan hartzeko etxebizitza babestuak puntukako baremazioaren bidez esleitzen dira.

### 2. Non argitaratzen dira sustapenak?

Esleipen-prozesuak ireki aurretik, Nafarroako Gobernuaren tramite ofizialaren fitxan argitaratzen dira sustapenak, “Tramitazioa” atalaren barruan. Bertan, udalerria, araubidea eta eskainitako etxebizitzak kontsultatu ahal izanen dituzu, besteak beste.

### 3. Zer egin behar dut parte hartzeko?

Prozedura bakoitzerako irekitako epearen barruan, sartu Etxebizitza babestuen eskatzaileen zentsuaren aplikazioan, aukeratu interesatzen zaizkizun sustapenak, eta ordenatu zure lehentasunen arabera. Zure inskripzio-datuekin bateragarriak diren sustapenak eta kupoak bakarrik hautatu ahal izanen dituzu.


### 4. Zenbat denbora daukat aukeratzeko?

Prozedura hasten denetik, 10 egun natural izanen dituzu zure hautaketa gordetzeko (prozedurak egun hauetan hasten dira: martxoak 1, ekainak 1, irailak 1 eta abenduak 1).

### 5. Nola aukeratzen ahal dut erreserba orokorra ala erreserba berezia?

Erreserba berezi baten baldintzak betetzen badituzu, aplikazioak aukera emanen dizu erreserba horretan parte hartzeko, baremo bidez. Bestela, erreserba orokorrean parte hartuko duzu, zozketa bidez. Aukera hori izanen duzu prozesuko sustapen guztietan: ezin da eskaera egin bi bideetatik.

## Zure prozesua, urratsez urrats




- **Zure jarduketa nagusia**: aukeratu eta gorde ongi zure sustapenak, 10 egun naturaleko epean.
- **Zozketari buruzko informazioa:** data, ordua eta esteka tramite ofizialaren fitxan argitaratuko dira, gutxienez 3 egun baliodun lehenago.
- **Emaitzak eta dokumentazioa**: hasierako zerrendaren ondoren, 10 egun balioduneko epea egonen da alegazioak egiteko; ondoren, behin-behineko zerrenda argitaratuko da, eta 10 egun balioduneko epea hasiko da, esleipendun izateko eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

.

# Zentsuaren aplikazioan egin duzun hautaketa

## 6. Zergatik ordenatu behar ditut sustapenak?

Sustapen batean baino gehiagotan hautatua izan bazara, zuk adierazitako ordenaren arabera posizio onenean dagoen sustapeneko etxebizitza gordeko zaizu. Gainerako etxebizitzak, berriz, itxaron-zerrenden arabera esleituko dira.

## 7. Nola jakin nire hautaketa gorde den?

Jarraitzeko eta baldintzak irakurri eta onartzeko aukera sakatu behar duzu, eta, ondoren, sinatu eta bidali. Aplikazioan, laburpen bat agertuko zaizu: aukeratutako sustapenak, horien ordena eta aukeratutako erreserba; eta, erreserba orokorrean parte hartzen baduzu, zure kode alfanumerikoa ere agertuko da. Sustapenak gorde gabe kontsultatuz gero, ez duzu aukerarik izanen parte hartzeko.

## 8. Non kontsultatu dezaket nire partaidetza-kodea?

Hautaketa gordetzean agertzen da. Epearen barruan hautaketa-pantailara itzultzean ere ikusi ahal izanen duzu, eta, ondoren, inskripzioen historian. Gorde ezazu: kode horrekin, zozketaren jarraipena egin dezakezu, eta, zure datu pertsonalak argitaratu gabe, emaitzak kontsultatu.

## 9. Alda dezaket nire aukera?

Bai. Epea zabalik dagoen bitartean, sustapenak, lehentasun-ordena edo aukeratutako erreserba aldatzen ahal dituzu. Horretarako, aldaketak berriro gorde beharko dituzu. Epea amaitzean ongi gordetako azken hautaketa izanen da baliozkoa. Azken kode hori izanen da zozketarako balioko duen bakarra.

## 10. Nola antolatzen dira erreserba orokorraren kupoak?

Lehenik eta behin, adin-taldeen araberako banaketa egiten da: etxebizitzen % 50 35 urte artekoentzat edo 60 urte edo gehiago dituztenentzat gordetzen dira, eta gainerako etxebizitzak gainerako adin-tartearentzat, % 100era iritsi arte.

Bigarrenik, eta adin-talde bakoitzaren barruan, erroldatze-irizpidea aplikatzen da: etxebizitzen % 40 udalerrian gutxienez bi urtez erroldatutakoentzat gordetzen dira, eta gainerakoak Nafarroan erroldatutakoentzat edo udalerri horretan denbora gutxiagoz erroldatutakoentzat.

# Zozketa

### 11. Zer gertatzen da aukeratzeko epea amaitzen denean?

Parte-hartzaileen zerrenda itxi egiten da, kupo bakoitzari dagozkion eskaerak egiaztatzen dira eta zozketarako behar den informazioa prestatzen da. Ez duzu beste tramiterik egin behar.

### 12. Nola egiten da zozketa?

Publikoa da, telematikoa eta notarioaren aurrekoa. Kupo bakoitzeko zozketa bat egiten da, eta kupo horretan onartutako eskaera guztiek baldintza beretan parte hartzen dute. Emaitza ateratzean, hautatutako pertsonak eta itxaron-zerrendako ordena zehazten dira.

### 13. Egin dezaket jarraipena zuzenean?

Bai. Data, ordua eta esteka tramite ofizialaren fitxan bakarrik argitaratzen dira, gutxienez 3 egun baliodun lehenago. Ez da banakako abisurik bidaltzen, eta, zozketa ikusteko, ez da beharrezkoa beste inskripzio bat egitea.

### 14. Zer gertatzen da zozketaren transmisioan gorabeheraren bat badago?

Zozketaren emisioa informatiboa da. Streamingak bakarrik huts egiten badu, konexioa berrezartzeko saiakera eginen da, edo beste aukeraren bat argitaratuko da. Emaitza ofiziala notario-aktan eta izapidearen zerrendetan jasotakoa izanen da.

### 15. Zer gertatzen da etxebizitzak baino eskaera gehiago badaude?

Itxaron-zerrenda bat osatuko da kupo bakoitzerako, zozketaren ordenari jarraituz. Eskatzaile bati etxebizitza bat baino gehiago esleitu izanagatik, baldintzak ez betetzeagatik edo uko egiteagatik esleitu gabe gelditu diren etxebizitzak esleitzeko erabiliko da zerrenda hori.

# Emaitzak, alegazioak eta dokumentazioa

### 16. Nola jakinen dut emaitza?

Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiak esleipendunen hasierako zerrenda argitaratuko du. Ez da banakako jakinarazpenik eginen. Zure kode alfanumerikoa edo partaidetza-zenbakia bilatu beharko duzu. Gogoan izan: eskaera ezarritako epean aldatu baduzu, azken partaidetza-kodea erabili behar duzu.

### 17. Alegazio bat aurkez dezaket?

Bai. Hasierako zerrenda argitaratzen denetik 10 egun baliodun izanen dituzu.

### 18. Zer gertatzen da alegazioen ondoren?

Hamar egun balioduneko epean, Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiak alegazioak aztertuko ditu, araudia eta prozesuko dokumentazioa kontuan izanda. Alegazioak ebatzi ondoren, tramite berean argitaratuko du esleipendunen behin-behineko zerrenda.

### 19. Orduan, behin betikoa da esleipena?

Ez. Behin-behineko zerrendan agertzen bazara, lehenik, egiaztatu behar duzu betekizunak betetzen dituzula. Esleipena ondoriorik gabe geratzen ahal da, baldin eta dokumentazioa epearen barruan aurkezten ez baduzu, egiaztatzen bada ez dituzula betetzen parte hartzeko baldintzak edo esleipenari uko egiten badiozu.

### 20. Non eta noiz aurkeztu behar dut dokumentazioa?

Gehienez 10 egun baliodun izanen dituzu, behin-behineko zerrenda argitaratzen denetik. Zurekin harremanetan jarriko dira, dokumentazioa eskatzeko.

### 21. Zer gertatzen da hainbat sustapenetan hautatuta banengoen?

Zure lehentasun-ordenan lehenengo agertzen den sustapeneko etxebizitza gordeko du aplikazioak. Libre geratutako etxebizitzak dagozkien itxaron-zerrendetako hurrengo eskabide baliodunei esleituko zaizkie.

# Uko egiteak eta zure datuen babesa

### 22. Zer ondorio ditu etxebizitzari uko egiteak?

Uko egiteak ondoriorik gabe uzten du esleipena, eta itxaron-zerrendan hurrena dagoenari eskaintzen zaio etxebizitza. Etxebizitza zure lehentasunekin bat badator eta justifikatutako arrazoirik ez badago, zentsutik kanpo geratuko zara 2 urtez, prozedura hasten denetik zenbatzen hasita.

### 23. Noiz jo daiteke justifikatutzat uko egitea?

Soilik araudian aurreikusitako arrazoiren bat dagoenean eta behar bezala egiaztatzen denean. Justifikatutako arrazoiak izan daitezke, besteak beste: etxebizitza ematean atzerapen bat egotea, esleipendunari egotzi ezin zaiona; hutsik dagoen etxebizitza bat eskatzailearen lehentasunekin bat ez etortzea; dirulaguntza kenduta, rrenta eskatzailearen urteko diru-sarreren % 35 baino handiagoa izatea; edo gerora enplegua galtzea edo lan-baldintzak okertzea.

### 24. Zer gertatzen da izen-ematea bateratua bada?

Inskripzio bateratuen kasuan, eskatzaile bat bi urtez zentsutik kanporatua geratzen bada justifikatu gabeko uko egite batengatik, egoera horrek solidarioki eraginen die inskribatutako biei, uko egitea haietako batek bakarrik jakinarazi arren.

### 25. Nola jakinarazi behar dut uko egitea?

Jasota uzteko bitarteko bat erabili behar duzu, eta frogagiriak aurkeztu. Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiak edo erakunde eskudunak kasua aztertuko du. Zailtasun bat alegatu baina egiaztatzen ez baduzu, alegatze hutsak ez du esan nahi zerrendatik kanporatua izanen ez zarenik.

### 26. Nola babesten dira nire datuak?

Zozketan eta zerrendetan partaidetza-kodea erabiltzen da. Ez dira argitaratuko datu hauek: izena, NANa, datu ekonomikoak edo familiako datuak, ez eta beharrezkoak diren bestelako datuak ere. Zozketaren emisioan, ez da erakutsiko barneko pantailarik edo espedienteko dokumenturik.

# Informazio gehiago behar duzu?

Hautatzeko eta esleitzeko **tramite ofiziala:** sustapenak, oinarriak, zozketa eta emaitzak

**Kontsultak eta laguntza:** formularioa